

Nik, Kontxi Urdampilleta Santamariak, Astigarragako Udaleko Idazkaria naizenez, honako hau

ZIURTATZEN DUT

Alkateak eskuordetuta, 2025eko maiatzaren 27an egindako ohiko tokiko gobernu batzordean, aho batez, AJAko 206 artikulua salbuespenarekin, besteak beste, honako erabaki hau hartu zela:

Kultura eta jai arloko dirulaguntza izendunak: Txirriskla taldea eta Danak Bat elkartea.

Lehena. Txirriskla txistularien elkarteari 13.200 €ko dirulaguntza izenduna onartzea.

Bigarrena. Danak Bat elkarteari 32.000€, dirulaguntza izenduna onartzea abuztuaren 22tik 25era bitarteko Ergobiako auzoan jaiak antolatzeko. Onartutako zenbatekoa jarduera hauetarako izango da: 6.000€ haurren ikuskizunetarako, 6.000€ musika kontzertuetarako, 12.000€ herri kiroletarako, 3.000€. Sagardo dastatze eta piroteknarako eta 5.000€ azpiegitura eta aseguru gastuetarako, dena den, dirulaguntzaren onuradunak azpimultzo bakoitzerako finkatutako kopuruan aldaketak egin ahal izango ditu (batean gutxiago erabili eta beste batean gehiago) jaien egitarauan izandako gorabeheren ondorioz. Aldaketa horiek zuri ketan xehetasunez azaldu eta egiaztatu beharko ditu.

Hirugarrena. Aipatu dirulaguntzak bideratzeko, ordainketa-era eta hartutako konpromisoak arautzen dituen hitzarmena onartzea.

Eta horrela ager dadin eta behar den lekuan ondorioak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatzen dut.

Astigarragan, 2025eko maiatzaren 27an

<p>Xabier Urdangarin Lasa Alkatea</p>	 <p>Astigarragako Udala IDAZKARITZA SAILA</p>	<p>Kontxi Urdampilleta Santamaria Ordezko idazkaria</p>
---	--	---